



**kontsumo**BIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

## **EBAZPENA, KONTSUMOBIDEKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ JENDAURREAN JARTZEN BAITA BALIO AKADEMIKO OFIZIALA DUEN TITULU BAT LORTZERA BIDERATUTA EZ DAUDEN IKASTETXE PRIBATUETAKO ERABILTZAILEEK INFORMAZIOA JASOTZEKO ETA INTERES EKONOMIKOAK BABESTEKO DUTEN ESKUBIDEA ARAUTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA EGIN AURRETIK**

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari atxikitako erakunde autonomoak, aurreikusita dauka balio akademiko ofiziala duen titulu bat lortzera bideratuta ez dauden ikastetxe pribatuetako erabiltzaileek informazioa jasotzeko eta interes ekonomikoak babesteko duten eskubidea arautzen duen dekretu-proiektua egiten hastea.

2022ko uztailaren 15ean, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legea argitaratu zen EHAAn. Lege horrek testu berri batean sartu eta txertatzen ditu xedapen orokorrak egiteko prozeduraren arloko arauak, eta honako hau ezartzen du 11. artikuluan:

"1. Xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentroak edo organoak kontsulta publikoan bilduko du, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi aurretik, herritarren iritzia.

2. Aurretiazko kontsulta prestaketa-fasean sartzen da, kontuan hartuta herritarrekiko interakzio-izapide bat dela, xedapenaren hartzaile izan daitezkeen pertsona guztiek beren iritzia emateko aukera izan dezaten, behar adinako epean eta hamabost egunetik beherakoa izan gabe, eta testu juridiko jakin bat onartu aurretik.

3. Aurretiazko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentroak edo -organoak bete ahal izango du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan iragarkia jarrita. Hala, herritarrei berariaz gonbidatuko zaie informazioaz iritzia eman dezaten, honako hauei buruz: araua onartzeko beharra eta egokitasuna, arauaren helburuak, konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

4. Testu juridiko arauemaile bat aldeztu aurretik onartu ondorengo araugintza-prozeduraren instrukzio-fasean, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak bete egin dezake, memorietan jasota utzita, artikulua honetan herritarren parte-hartzeari buruz jasotako eskakizuna".

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la sede electrónica mediante el localizador indicado al pie de página. Documento hau jatorrizko dokumentu elektronikokoaren irudikapen bat da, egoitza elektronikokoan egiaztatgarria, orri-oinean adierazitako lokalizatzailearen bidez.

Santiago 11 – 01002 Vitoria-Gasteiz. 945.06 21.40 – Fx. 945 06.21.41  
e-maila: [kontsumobide@kontsumobide.eus](mailto:kontsumobide@kontsumobide.eus)/[www.kontsumobide.eus](http://www.kontsumobide.eus)



Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T7YH8-TT0V

EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea> / <https://euskadi.eus/localizador>

SINATZAILE / FIRMANTE: ANA MARIA SANCHEZ HERRAEZ | 2026/03/09 11:55:38



Bestalde, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuen eta antolakunderik ordezkagarrienen iritzia jasoko da ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoei buruz, hura onartzeko beharrari eta egokitasunari buruz, arauaren helburuei buruz eta egon daitezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik buruz.

Horregatik guztiagatik, aipatutako kontsulta publikoaren izapidea betetzen da, balio akademiko ofiziala duen titulu bat lortzera bideratuta ez dauden ikastetxe pribatuetako erabiltzaileek informazioa jasotzeko eta interes ekonomikoak babesteko duten eskubidea arautzen duen dekretu-proiektua egin aurretik, herritarrek aukera izan dezaten parte hartzeko eta planteatzen den aruari ekarpenak egiteko.

Dekretu honen 1. artikuluan emandako eskumenekin bat etorriz, 3.4.d) Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren egitura eta antolaketa ezartzen dituen 159/2011 Dekretua.

## **EBAZTEN DUT**

**LEHENENGOA** .- Herritarrei aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea egitea, balio akademiko ofiziala duen titulu bat lortzera bideratuta ez dauden ikastetxe pribatuen erabiltzaileek informazioa jasotzeko eta interes ekonomikoak babesteko duten eskubidea arautzen duen dekretu-proiektua egin aurretik, 15 egun balioduneko epean, ebazpen hau Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta Irekia gobernu irekiaren plataforman argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

**BIGARRENA** .- Ebazpen honen eranskina onartzea, herritarrek ekimenari buruzko iritzia emateko behar den informazioarekin.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean

**ANA SÁNCHEZ HERRAEZ**

**KONTSUMOBIDE-KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUKO ZUZENDARIA**

## ERANSKINA

<p>1- EKIMENAREN BIDEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</p>	<p>4/2023 Legearen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio, besteak beste, bere lurralde-eremuan kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko politikaren plangintza orokorra diseinatzea eta politika horri eragiten dioten sailen arteko jarduketa-planak sustatzea. Kontsumitzaileak informaziorako eta interes ekonomikoak babesteko duen eskubidea behar bezala babestu behar duen sektoreetako bat da balio akademiko ofiziala duen titulu bat lortzera bideratuta ez dauden irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe pribatuena.</p> <p>Horri buruzko erregulazio berri bat behar da, alde batetik, urrutiko ikastaroak kontratatzeak eta emateak nabarmen gora egiten duelako, eta beharrezkoa delako erabiltzaileak kontratatu aurretik eta kontratuan bertan jaso behar duen informazioa indartzea, bai eta uko egiteko duen eskubidea ere, eta, bestetik, erabiltzaileak hirugarren batengandik edo ikastetxetik bertatik lortzen duen finantzaketarekin ordaintzen duelako ikastaroa, eta horrek arau bereziak ezartzera behartzen du erabiltzailea behar bezala informatuta egon dadin.</p>
<p>2- ARAUA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA</p>	<p>Dekretu-proiektua justifikatzen da modu eguneratuan arautu behar delako balio akademiko ofiziala duen titulu bat lortzera bideratuta ez dauden ikastetxe pribatuetako erabiltzaileen informaziorako eta interes ekonomikoen babeserako eskubidea, are gehiago kontuan hartuta arlo horretan izandako aldaketak, bereziki Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren apirilaren 27ko 4/2023 Legea onartu zenetik, zeinak indartu egiten baititu kontratu aurreko informazioa eta kontsumitzaileen informazio-eskubideak.</p>
<p>3- ARAUAREN HELBURUAK</p>	<p>Dekretu-proiektuaren xedea izango da arautzea Euskadin ikasketak ematen dituzten ikastetxe pribatuen erabiltzaileek informazioa jasotzeko eta interes ekonomikoak babesteko duten eskubidea, baldin eta balio akademiko ofiziala duen titulu bat lortzera bideratuta ez badaude, irakaskuntza ofizialak ere ematen dituzten alde batera utzita, irakaskuntza emateko modalitatea edozein dela ere (presentziala, urrutikoa edo mistoa), eta ikastetxeen titularrek egoitza soziala edo fiskala Euskaditik kanpo izan arren. Eman beharreko gutxieneko informazioa ezartzen da, eta argi eta garbi ikusteko moduko leku batean kokatu behar da.</p>

<p>4- EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILE ETA EZ- ERREGULATZAILEAK</p>	<p>Aurreko ataletan azaldutako alderdiak kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da araudi espezifiko berri bat egitea, eta ez dago bestelako irtenbiderik.</p> <p>Lehenengo aukera, eta ez da egokitzen jotzen, uztailaren 22ko 182/1997 Dekretuari eustea da, balio akademikoa duen titulu bat lortzera bideratuta ez dauden unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe pribatuetako erabiltzaileen informazio-eskubidea arautzen duena.</p> <p>Bigarren aukera egungo idazketa aldatzea izango litzateke. Aukera hori baztertu egin da; izan ere, adierazi den bezala, egungo errealitateak dekretu osoa berrikustea gomendatzen du, dekretua aldarrikatu zenetik igarotako denbora eta ordutik kontsumoaren arloan egindako erreforma ugariak kontuan hartuta, Euskadik arau-esparru eguneratua izan dezan.</p> <p>Horrenbestez, adierazi den bezala, aukerarik onena da indarrean dagoena ordeztuko duen dekretu-proiektu berri bat egitea, segurtasun juridikoa emango duen alternatiba ez-arautzailerik gabe.</p>
--	--